

EUSKERA

BASERRIETAN ETA URIETAN

ASKOREN ARTEAN

Munduan izkuntza asko dagoz, ori ukatu eziñekoa da.

Babel'go Torrea egin zanean, Jainkoaren asarrekuntza bategaitik sortuak dirala, diño Liburu Santuak.

Nik ez dakit euskera orduan sortukoa dan ala ez, baiña ziur dakidana auxe da: Europa'ko inguruan gizon batzuk, Europa'ko izkuntzen erroetatik ez datorren izkuntza baten bitartez alkar ulertzen dirala.

Eurak Aitor'en izkuntz zarra dala esaten dabe: EUSKERA.

* *

EUSKERAZ EGIN

Gizon orreik gu gara.

Geu gara Euskal Errian bizi garenok eta izkuntza orren jabeak, geu gara izkuntza ori sendatu bear dogunak.

Geuk daukagu ardurea izkuntz ori galdu ez dadin eta orrexegaitik gure izkuntza euskera izan bear da, euskeraz egin bear dogu.

*

EGITEKO IKASI

Guztiok egin bear dogu euskeraz berba, gizonok eta emakumeok, gazte ta zarrok, guztiok.

Ez dakienentzat doa esaldi AU: «Ez dakianak, ikasi; dakianak irakatsi».

Nire ustez, esaldi onetan gordeten da gaurko lana. Euskera egiteko, jakin egin bear da eta jakiteko ikasi.

Baiña euskera jakitea ez da «egunon» edo «Gora Euzkadi» esatea, ez, euskera jakiteko orduak sartu bear dira liburu-artean.

EUZKADI'KO IZKUNTZA

Euskera zarra dala esan dot, bai zarra gorputzez, zarra urtez, baiña gaztea biotzez.

Oraindiño landu barik dago.

Len euskeraz egiten zan, gaur gure asmoa euskera egitea da, ez daitela galdu, eta gure itxaropena, auxe izan bear da: Euzkadi'n izkuntza nagusiena: EUSKERA.

* * *

LEKU GUZTIETAN

Gaur euskera baserrietan baiño ez da nagusi, urietan erdere da jaun eta jabe.

Baiña biar-egunean euskera izkuntz nagusi izatea gura ba'dogu, euskeraz egin bear da, ez bakarrik baserrietan eta ikastoletan, baita, urietan, lantegietan, eskoletan, tabernetan... leku guztietan be.

Euskerearen jabeak guztiok izan bear dogu eta ez gara izango euskerarik egiten ez ba'dogu.

*

BARRIAK LORTU

LENGOAK EZ GALDU

Orrelan ba, euskera zarra dalako (eta ez museorakoa), gure asaba zarrak emondako gauza bat dalako, geurea dalako, euskeraz egin bear dogu edozein lekutan, eta guztiok, beti, ostantzean zertarako izango dira ainbeste autonomi, askatasun ata beste ainbeste gauza, geurea dana galduten ba'dogu?